

Bilboaldeko euskarazko prentsa idatzia: 1940-1980

Angel Zelaieta jauna

Irakaslea

1940-1980 urteetako Bilbo inguruan euskaraz edo euskaldun legez agerturiko prentsa idatzia hamar multzotan bana daiteke: Gerra ostean klandestinoki berrargitaratua, klereziak euskara hutsez edo kasik emana, partidu, sindikatu, instituzio eta ekimen pribatuak argitaratua, Vatikanoko II.aren inguruan militantzia katolikoak sortua, euskal burgesia gorenarena, asmo literario-kulturalezkoa, haur eta gaztetxoentzako, asmo pedagogikoduna, Bilbo hirian bertan euskara hutsez emana eta asko eta asko desagertuak izan direla.

Giltza hitzak: Euskara, Bilbo, prentsa, katolikoa

Prensa eusquérica circumbilbaina: 1940-1980

La prensa eusquérica circumbilbaina entre 1940-80 puede distribuirse en diez grupos: la anterior a la Guerra clandestinamente reeditada, la publicada en euskara por la clerecía, la clandestina o en el exilio de los partidos y sindicatos, la de la militancia católica cercana al Vaticano II, la de la alta burguesía vasca, la de carácter literario-cultural, la destinada a la infancia y juventud, la de las instituciones e iniciativa privada, la publicada íntegramente en euskara en Bilbao, y, característica muy común, su desaparición o suplantación.

Palabras clave: Lengua vasca, Bilbao, prentsa, católico

Basque Press in and around Bilbao:1940-1980

The Basque Press in and around Bilbao between 1940 and 1980 can be divided into ten categories: the clandestine reedition of the Basque Press before the War, the one published in Basque by the clergy, the one published secretly by political parties and unions in exile, by the catholic supporters within the Vatican II, by the upper middle class Basque society, the culturally and literally aware, the youth/teenage /children press, the one published by Institutions or private initiatives, the one published entirely in Basque in Bilbao and the largest group:the one that disappeared or was replaced.

Key words: Basque language, Basque press, Bilbao, catholic

Bilbon edo Bilbo inguruan gerra ostean, 1940-80 urteetan, irakurtzen zen euskal edo euskaldunen prentsa idatziak jarraiko ezaugarri nagusi hauek dauzka:

1. **Gerra aurrean** sortua, gerrak isilerazia, gerra ostean berrargitaratua: *Aintzina, Antzerti, Anuario de Eusko Folklore, Aránzazu, Argia, Arrati'ko Deya, El Bidasoa, Eibar, Euzkadi, Elgar, Eskualduna, Euskera, Eusko Ikaskuntza, Euzko Deya, Gudari, Gure Herria, Ikuska, Jagi-jagi, Jesusen Biotzaren Deya, Karmen'go Amaren Egutegia, La Lucha de Clases, Lan Deya, Lekaroz, Nación Vasca, Oarso, Pyrenaica, Txistulari eta Zeruko Argia.*

2. **Klereziak euskara hutsez**, edo hainbat, argitaratua, sinesmen-helburuekin: *Aintzina, Anaitasuna* (nahiz laizista kutsukoa, azken aldian), *Anayak, Arantzazuko Amaren egutegia, Argia, Arnas, Arrati'ko Deia, Artzai Deia, Aurrera, Batasuna, Bidez, Egi-Billa, Egiz, Ekin, Eskualduna, Ezkila, Goiz Argi, Irugarrengoen Maixua, Jaunaren Deia, Jesusen Biotzaren Deia, Kardaberaz, Karmel, Karmen'go Amaren Egutegia, Laiaketan, Mezulari, Erein, Othoizlari eta Zeruko Argia.*

3. Euskara hutsez, edota gaztelania hutsez, edota bietara, **asmo literario-kultural**ez argitaratua: *Aintzina, Aranzadiana, Cuadernos de Etnología y E. de Navarra, Dantzari, Dantzariak, Eman, Etniker, Euskalan, Euzko-Gogoa, Fontes Linguae Vasconum, Gernika, Hordago, Igela, Ikas, Ikasi, Ikasle, Ikuska, Irrintzi, Jakin, Muguertarra, Ob Euzkadi, Olerti, Pott, Pott Banda, Saski-Naski, Susa, Panpina Ustela, Xaguxarra, Zumárraga, Zurgai.*

4. **Politikazko eta sindikal** aldizkariak: EAJ (*Aberri, Alderdi, Egija Gugaz Danen Aurka, Euzkadi Press, Eusko Aberri Alkartasuna, Euzko Deya, Euzko Enda, Euzko Etxea Deya, Irrintzi, Jagi-jagi, Sabindarra, Espetxean*), EGI (*Azkatasuna, Eutsi, Euzkadi, Gudari, Hautsi*), EAE-ANV (*Nación Vasca, Tierra Vasca*), ETA (*Batasuna, Berriak, Boga-Boga, Branka, Cuadernos de ETA, Ekintza, Gatazka, Goazen, Gora!, Iraultza, Iritzi, Kemen, Langile, Zertan, Zutabe, Zutik, Zuzen*), ETA VI (*Gudaldi, Proletario*), ETA-PM (*Hitz*), ETA-BAI (*Aitzgorri*), PSOE (*Berriak, Ere, Gaste'en Alkartasuna, Meabe*), PCE (*Arragoa, Euskadi Obrera, Hemen eta Orain, Mundo Obrero*), EE (*Ere*), EIA (*Herri zutik*), LKI (*Combate, Saioak, Zutik*), EMK (*Zer egin?*), ORT (*Abenduak 11*), EHAS (*Euskaldunak*), ELA (*Lan Deya, Lantzen*), ESB (*Garaia*), LAB (*Iraultzen*), LAIA (*Sugarra*), CCOO (*Biltzar*), FRAP (*Askatzen pro-Frap*), EGG (*Jaiki Gazteria*), *Enbata*, Falangeak (*Acción Juvenil, Arriba España*), Carlismoak (*Carlistas*), Komunistek (*Alkarriske-ta, Alkartu, Askatasuna, Burruka, Komunistak, Saioak Bat*) ... argitaratuak.

5. Vatikanoko II.aren inguruako **militantzia katolikoak** gaztelaniaz -edo kasik- argitaratuak: *Adsum, Aguiluchos, Aitziberri, Albia, Alkartasuna, Alleluia, Ángeles de las Misiones, Angosto, Antorcha, ¡Así!, Aurrerantz, Barañain, Bilatzen, Bizi Nai, Boga-Boga, Boletín del Obispado de Bilbao, Brisas Guerniquesas, Cantabria Franciscana, Christus, Cauce, Comunicación Parroquial, Concordia, Cooperante Paulino, COPE irratiak, Destellos Salesianos, Eibar,*

Elkartasuna, Enlace, Estivaliz, Estudiante Sacramentino, Fulgores, Gaminiz, Gazte, Gogoz, Gure Erria, Herria 2000 Eliza, Iglesia de Vizcaya, Izar Berri, Jaiki, Jarrai, JOC, Juventud, Juventudes Antonianas, La Voz de la Madre, Lecároz, Leibar, Lóinaz, Los Ríos, Luises, Luzaide, Mezulari, Nora?, Obra Máxima, Ondarrabi'ko Izparrak, Ondarroa, PPC, San Marcial, SIR, Sirimiri Zornozano, Surge, Vinculum, Yunque, Zeutzat eta Zuretzako.

6. Euskal Herriko **burgesia gorenak** argitaratuak: *Anuario Vascongado, Anuario "Julio de Urquijo", Boletín de la RSVAP, Egan, Estudios Vizcainos, Junta de Cultura de Vizcaya, Munibe, San Mamés, Vida Vasca* eta *Vizcaya*.

7. Demokrazia garaian asmo **pedagogikoekin** euskaraz argitaratuak: *Altzagako Kazeta, Boletín de AAEEMPA, Deustuko Ikastola, Ego Ibar, Elbuyar, Errotta, Euskarri, Gaur, Gordailu, Ikas, Lauro, Urraspide, Urrats* eta *Zubi zabar*.

8. **Informazio orokorreko eta kultura** aldizkariak. Ekimen pribatukoak: *Agur, El Abra, Ariz Ondo, Beasain Festivo, Boletín del Instituto Americano de Estudios Vascos, Bulletin du Musée Basque, Le Carillon des Jeunes, El Casco Viejo, Eskualduna, Euskaltzaleak, Euzkadi Pres, Gaiak, Garaia, Gay Hotsa, Gerediaga, Herria, Ibaizabal, Kezka, Kobie, Lartaun, Muga, Punto y Hora, Pyrenaica, Saioak, Santutxu, Tavira, Trabajo y Unión, Txistulari, Vasconia Express, Zabal, Zabalik, Zarauz, Zebatz* eta *Zer*. Diputazio eta Udalek argitaratuak: *Argiñeta, Kaixo, Príncipe de Viana, Lapiko, Oiartzun, Vizcaya*. Unibertsitateek argitaratuak: *BIU, Estudios de Deusto, Letras de Deusto, Mundaiz, Sagar*. Banku eta Kutxek argitaratuak: *Boletín Informativo del Banco de Vizcaya, Boletín Sancho el Sabio, Kurpil, Lugintza*.

9. **Haurren** eta gaztetxoentzakoak: *Eudeia, Ipurbeltz, Kili-kili, Pan Pin, Pottoka, Pottolo, Umeen Deia, Zubikoa*.

10. Zerbait euskaraz eman duten **egunkariak**: *Deia, Diario de Navarra, Egin, El Correo, Hoja de Lunes de San Sebastián, La Voz de España, El Diario Vasco*.

11. **Desagertuak** izan direnak, edo agian **ordezkatuak**, geure *Anaitasuna*-gandik hasi eta multzo haundi bat, haundiegia: *El Abra, Agur, Aitzina, Aitzgorri, Aitziberri, Albia, Alderdi, Alerta, Alkarrisketa, Alkartu, Arragoa, Berriak, Bizi Nai, Branka, Euzko-Gogoa, Gerediaga, Gernika, Hitz, Igela, Kili-Kili, Muga, Ob Euskadi, Punto y Hora, Ustela, Zeruko Argia, Zumarraga* eta beste multzo handi bat.

12. Bilbo hirian euskara hutsez argitaratuak:

12.1. Agur eta Zer

Lehen alea 1970.V.30ean atera zen. Hamabostekaria aurrenik, 34. zenbakitik aurrera astekaria. Zuzendaria, harik eta 73.XII.29an hertsia arte, José María Retana. Gehien agertzen diren idazleak: J. Arenaza, J. Lasa, A. Zubikarai, R.

Zapirain, K. Gallastegi, P. Solozabal eta Y. Yurre, hots, belaunaldi zaharrekoak. Juan Angel Etxebarria eta Mikel Zarate, oster, belaunaldi ertainekoak, hark era autobiografikodun artikulua eta azkenak literaturari buruzkoak. Bizkaieraz eta gipuzkeraz, Euskaltzaindiaren batasun joerari jarraitu barik. Herrietako albisteak, hizkuntza, literatura, kirolak, poesia eta bibliografia ematen zituen.

Zer, 1977ko uztailean sortua, euskara hutsez, aurretiaz *Agur* aldizkarian jardundakoek argitaratzen dute. 1980an 38. alea bota zuten.

12.2. *Anaitasuna*

Esan dezagun ezer baino lehen gure zeregin honetan geu aldizkari honetako Zuzendari izan ginen garaikoari lotzen gatzaizkiola batik bat.

12.2.1. JABEGOA, ZUZENDARITZA ETA EGOITZA

Imanol Berriatua frantsizkotarrak sorturiko *Anaitasuna* (bizkaieraz) Foruan izan zen 1953-1955 bitartean (Jose Garate frantsizkotarrak sortua zen 1950ean, gipuzkeraz); Bilboko Verdesen inprimatzen zen 1955-1957an, Alfonso Irigoien ahaleginpean; *Jakin* taldeko teologoen zeramaten, Arantzazun, 1957-1966 urteetan; Bermeon, Juan Azurmendiren zuzendaritzapean, 1967-1969ko epean.

Anaitasunaren Zuzendaritzak eta zenbait laguntzailek hala eskaturik, 1968ko martxoan, Bilbo Zaharreko Torre, 3an, bildu ginen zenbait euskaltzale gazte. Josu Naberanek eta Angel Ugarteburuk A. Zelaietaren izena proposatzen dute Zuzendari izateko, eta halaxe onartzen. Zuzendari izateko baimena eskatzen da garaiko Información y Turismo delakoan, eta izendapena etorri ere egiten da, 1969.III.21ean M. Fraga Iribarnek sinatua.

Zelaieta eta zenbait bere kide, ordea, Txabi Etxebarrietaren heriotze osteko mezekin lotu xamar dabilta, abuztuaren batean kasik dozena bat apaiz bizkaitar detenitzen dituzte, M. Manzanas hil ostean salbuespen egoera gertatzen da eta, azaroan, 60 apaiz -Zelaieta barne- Derioko Seminarioan hersten dira.

Bizkitartean, Jose Luis Lizundia egunero dator Bilbora lanera, eta noizbehinka Galdakaoko Bengoetxen gelditzen da, Zelaietari *Anaitasuna* argitaratzen ahalegin dadin eskatzeko.

Gure ardurapeko garai eta sail berria 1969ko irailaren 15ean hasten da, Galdakaoko Bengoetxe auzoko Imprenta Ideal delakoan. Zenbakia, haatik, 172a da, hots, aurrekoei darraie. Hamabostean behin argitaratzen zen, 15ean eta 30ean, eta ale bakoitza 4 pezetan saltzen.

Ale berria bota aurretik, Erredakzio Batzordearen bilera izaten zen. Unekada batez, Zelaieta ihesia edo ostendu xamar zela, Lizundiak egin zituen Zuzendari lanak.

Jabegoa, ostera, Euskal Herriko Anaia Txikarrak erakundearena zen, eta Durangoko Intxaurren 1ean zeukan jabego-egoitza, non bizi baitzen aita Agirretxe jauna, zeinak deiturik berarekin egon baikin birritan.

Galdakaoko Bengoetxe, 33-b-n zeukan hasiera batean egoitza, non bizi baitzen beraren Zuzendaria. Inprenta-lanak Imprenta Idealek egiten zituen, aurretiaz Ralik irarrita.

Galdakaoko egoitza eta inprenta utzi, eta Bilbora iragaten da, 70.IX.15ean hasita, Jardin Txikerra, 1 delakora. Inprenta lanak Amado etxeak egiten ditu, aurretiaz Rali etxeak inpresio lanak eginda. Aleko 150 pezeta.

Hasi eta urtebetegarrenean, erreflexio bat agertzen da, portadan, eta Imanol Berriatuaren (euskara) “zuzentzaile” lana goraiatzen.

Josu Torre agertzen da “Idazkola eta banakolaren buru”, 72.II.29an hasita; Imanol Berriatua azaltzen da (hizkuntzaren) “Zuzentzaile”, 71.II.15etik aurrera, “Zuzendaria ordezkotza” 72.X.30ekoan, eta ez da Zelaieta (jadanik sekulartua, ezkondua eta IMIn lanean) Zuzendaria, nahiz eta “Euskaldungoa” egin harik eta 72.XI.30 artino.

Atxuriko Encarnación, 19an (Artetxu) dauka bulegoa, 72.IV.15etik aurrera, Josu Torre “Idazkola eta Banakolaren Buru” dela. Zuzendaritzan aldaketa berria gertatzen da 74.III.3ln: “JABEA: San Frantziskoren Hirugarren Ordenako Batzarre Nagusia. Batzarburu: Miguel Zapata (Goya, 25. Madrid-1). ZUZENDARIA: Joseba Intxausti. O.F.M.”. Joseba I.k Zuzendaritza utzi eta “Joan Mari Torrealda. O.F.M.” gertatzen da Zuzendaria 74.XI.30ean.

Torrealdairi 77.III.1ean egindako elkarrizketan, “Legezko Zuzendaria” dela dio, “ihazko maiatzetik”. Ale honetan, egoitza Zabalbide, 68an dauka *Anaitasunak*, eta 78.IV.1-15ekoan agertzen da azken aldiz Torrealda Zuzendaria karguan. Iker enpresaren ardurapean argitaratzen zen *Anaitasuna* eta 1976-1977 urteotan zuzeneko zuzendaria Mikel Alvarez izan zen.

J. R. Etxebarriak egiten du “Koordinaketa” 78.I.1ean, eta “Erredakzioa” T. Trifol eta J. Llerandik. “Erredakzio Kontseilua”: J. Agirreazkuenaga, J. Aurre, J. R. Etxebarria, X. Kintana, E. Knôr, J. Ididoras (“Me facilitaron un trabajo más cómodo y flexible en la revista *Anaitasuna*, que entonces tenía su sede en la calle Zabalbide, cerca de Santutxu” dio bere memorietan), J. Iturbe, J. Llerandi, E. Martin, T. Trifon, I. Urtasun, I. Zabaleta. Jon Idigoras eta A. Uriak daramate “Publizitatea eta Harpidetza”.

Ez du agertzen “Koordinaketa” lana nork egiten duen, baina bai “Erredakzio Kontseilua”, 82.IV.an: I. Antigüedad, J. I. Basterretxea, J. R. Bilbao, J. R. Egiluz, J. R. Etxebarria, J. M. Pastor, I. Saez. “Publizitatea eta Harpidetza”, esaniko goiko biok.

Imanol Berriatua 1981ean hil ondoren, 1982an desagertu egin zen.

12.3.2. HARPIDEDUNAK ETA IRAGARKIAK

X. Gereñok 70.1.15ean “Gure harpidedunak, 1969 amaitu denean” delakotan, jarraiko taula hauxe ematen du:

Araban, 30	Nafarroan, 23	Bizkaian, 3.004
Gipuzkoan, 371	Ipar Euskalerrian, 10	Denetara, 3.531

Bizkaiko harpidetzaren banaketa ere honetan ematen zuen, guk laburturik, muestrario gisa, hona dakarguna:

Armintza, 1	Bakio, 7	Bilbo, 717
Algorta, 56	Barakaldo, 17	Ondarroa, 202

Aldizkaria atera ahal izateko, harpidetza zen oinarrizko azpiegitura. Bero-rekin batera, idazle guztiek dohan lan egiten zutela, eta, azkenez, iragarki banaka batzuek. Honetaz ardurarik handiena Xabier Gereñok izan zezakeen. Lehen zenbakian, beronen Cinsa etxearen iragarkiak eta La Gran Enciclopedia Vascak RIEV iragarritz orrialde oso bana betetzen dute. Beste biak Funcor S.C.I eta Imprenta Ideal dira.

(LGEVk Azkueren hiztegia argitaratuko duela eta, Euskaltzaindiak hori bere “baimenik gabe” egiten zela ohar egin zigun).

Gehien agerturiko iragarkiak: Cinsa (Gereñorena), La Gran Enciclopedia Vasca, Funcor, Imprenta Ideal, Ongarri S.A., Lomiño, Amaya Idatzmakinak, Eurovalor, Lur editoriala, Margo Ederdun Entziklopedia, Sony, Sendo argitaldaria, Bizkaiko Aurrezki Kutxa, Casa Vasca restaurantea, Amado irarkola, Century, Coca-Cola, Edesa, Elay Alay dantza lekua, Banco de Bilbao, Margola, Jose Txurruka, Unceta, Kareaga (azkenok Eibarkoak), Chobil, González Byas, Irakur Sail, Etorbidean Kultura, Irusa metal industriak, Depuradora de Aguas, Transportes Anaitasuna, Soberano, Studio 2 Akademia, La Begoñesa, Bilbao Goyoga, Verdes Liburudenda, Martín Aldazábal, Colchonería Vasca, Viajes Bilbao.

Iragarki edo mezenas bila lanik handiena Gereñok egin zezakeen. Honela dio behin, 71.II.28an:

“Banco de Vizcaya. Behin eta berriro joan naiz Banco de Vizcayara, *Anaitasun*rako publizitatea bilatu nahian. Ordu ederrak eroan dauzkidate zorioneko joan-etorriok. Lehenengo hara joan eta gero urlia jaunaren zain egon beharra. Azkenean erantzuna: “No consideramos rentable”. Ikusten denez, Banco de Vizcayarentzat rentable da erdal aldizkarietan anuntzioak jartzea, baina ez euskerazkoetan, nahiz eta noredonorentzat euskera burges hizkuntza izan.

Sututa atera nintzen handik. Ez ote da ba Banko hori hemen sortua? Ez diote ba euskaldunek Banko horri beren lana ta dirua eskaini? Hori da orain hartu behar dugun ordaina?”

Diru-sarrera horiei esker ordaindu ahal zen edizioa, eta apurren bat gehiago, Zuzendaria Elizaren azpiegituraz baliatu zen bitartean, batez ere.

Aparteko aipamena zor zaio, baita ere, Maribel Zamakonari, zabalkunde eta, batez ere, kobraketa lanetan izan zuen eraginagatik.

12.3.3. GAI NAGUSIAK

Geure aldian, eta geure ustez, garrantzirik handiena izan zuten gaiak ematen ditugu, gehiagotik gutxiagora sailkatuz:

12.3.3.1. Euskararen batasuna

Gure aldiko *Anaitasuna* honen helburu nagusia euskararen batasuna gertatu zela esan daiteke. Lehen alean bertan, Juan Maria T., O.F.M.-ek izenpeturiko “Euskal Idazleen Elkarte” atariko artikuluan bertan aitutzen du, eta esaten: “Euskeraren Batasuna: (...) Berbakera baten batasuna gizonaren obra da beti; eta batez bere gure erria, ez dogu ta beste estrukturarik geure alde”.

“Literatura euskerearen batasunari buruz Euskaltzaindiaren Agiria” eman genuen 69.X.30eko alean, “Zuzendaritzearen” oharrarekin: “*Anaitasunak* (...) Bizkai aldeko batasuna egin gura dau”. (Izan zuen honek *Argiakoekin* eztabai-darik ere, 70.IV.30ekoan ikusten denez). Zuzendaritzak batasunari buruz hartu dituen “erabakiak” ematen ditu, 70.IX.15ean. Berriz ere 72.I.30ean, hiztegi basikoan.

“Idazleen Batzarra Baionan” 1970.I.15ean portadan jarri genuen, “euskararen batasuna martxan dago” zioela Xabier Gereñok. Portadan, baita ere, “Eibar-ko Zina”, 70.V.15ean, “euskeratuaren izar dirdaitsu” dela dioela X. Mendigurrenek. “Ikastolak eta euskara batua”, 71.I.15eko portadan.

Ugari, baita ere, gai honetaz ziharduten lanak: “Euskera idatziaren batasuna” J. San Martinek, “Euskara batua Nafarroan” G. Trintxerpek, “Literatur tradizio baten bila” hasten da Xabier Kintana 70.V.30ean. (Kintanak hainbat aldiz heldu zion gai honi: “Berbeta batua”, “Literatur tradizio baten bila”, “Aditz batua dela eta”, “Puntu batzuei erantzuna” (Imanol Berriatuaren “Ikasi zeure hizkuntza” konplementatuaz), “Iparraldeko idazleei” (Arantzubiren erantzuna izan zuena), “Aditzaren batasunaz”, “Aditzaren batasunaz gauzak argiro”). Hainbat aldiz Sarasolak ere: “Literatura tradizioaz”; edota “Euskara batua, lapurtera klasikoaren alde” H. Garaigortak.

Aditz Batuaren taula eman zuten Aresti eta Kintanak, 70.V.30ean.

Dionisio Amundarainek “Euskera bateratua liturjian” eskatzen du 70.I.15ean. Gauza bera, jarraian, Setien Jaxintok. Gereñok I. Berriatuaren “Sermoiak euskara batuan” berria ematen du.

Behin behintzat, jatorrizko euskara aldatu edo “bateratuan” jarri gabe eman genuen: “Jose Antonio Retolazaren eskaria errespetatuaz” (72.V.15). X. Letek zioskun behin gure euskara “euskara Berriatua” zela.

Izan genituen, hurrean, joera traketsak ere, Estornés Lasak dioenaren arabera: “Nota de B.E.L.- (...) el Sr. Zelaieta dirige un seminario titulado *Anaitasuna*, o sea, *Hermandad*. Sin embargo (...) el seminario no ha recogido las quejas de

las discriminaciones, enviadas al Director, que ni siquiera se ha dignado contestar las cartas. Es mi caso. Quede consignado.” (Ik. in *Literatura*, IV, 553. o.).

12.3.3.2. Literatura eta liburugintza

Gehientsuen ateratzen zen gaia hauxe, liburu berriak iragarriz, komentarioak eginez...: “Patxi Uribarren euskal olerkaria”, Leteren “Poetaren lurrak”, Saizarren *Egunero basten delako*, Sarasolaren *Poemagintza*, *Euskal Elerti* 69, *Uhin berri*, Gereñoren *Arantza artean*, *Batasunaren Kutxa* Kintanak aurkeztua (Mendizabalen erantzuna, eta Kintanak beroni erantzunak izan zituen), “*Isturitzetik Tolosan barru* liburu”, J. Bilbaoren “Eusko Bibliographia”, *Lau gartzelak* P. Urtiaga, “Oihenarteren euskal lanak” X. Kintanak, “Ibon Sarasolaren *Euskal Literaturaren Historia*” San Martinek eta L. Haranburu-Altunak. Zabalaen *Historia del Pueblo Vasco*, “*Kaniko eta Belxitina* liburu berria J. Torrek (Hormaetxeren erantzuna izan zuena), “*Historia Social de la Literatura y el Arte* H. Hauseren liburu”, “*Los Baroja* edo Julio Caro Baroja biluzik” eta “*Borobila eta Puntua* Atxagaren antzerki berria” A. Zelaietak, “*Linguistika orain arteren inguruko oharra*” Xabier Kintanak, Amurizak itzulitako *Bai mundu berria*, “Marxen izkribuak euskaraz” G. Garatek, *El gran asombro* Artetxe zenaren liburu, *Hegatsez*, “Idazle marginatu baten defentsa” Pariseko euskerazale batzuk (Peillenen alde), “Joxe Azurmendiren *Hizkuntza, etnia eta marxismoa*”, “Xabier Kintanaren *Behin Batean*” J. San Martinek, “Zorion baten zainak” Patxi Zabaletak, “Gu Larresororen alde” (*Z. Argiako* kritikagatik), “Kintanaren ukroniaren inguruan” X. Gereñok, “J. Arregik eta J. Azurmendik *Kolakowski, Jakinen*”.

Juan San Martinek ekiten dio urte barruan argitaraturiko liburuen zerrenda emateari, 70.II.15ean.

Lur eta Irakur Sail argitaletxeen berri kasik ale bakoitzean ematen zen, biak parean jarri nahian. Euron ondoren, “Etorbidean kultura”.

12.3.3.3. Berriak eta Euskaldungoa

Anaitasunak Bizkaiko herrietako berriak ematen zituen, batez ere: guk aterra genuen lehen alean, Galdakano (sic), Lekeitio, Zornotza, Bilbo eta Bakio agertzen dira, zeintzuetako kronika Jose Luis Egireun, Zorrozu, Ig. J. Espinosa, X. Gereño eta Y. Arrietak izenpetzen baitute, hurrenez hurren. Gaiak “euskal” arlokoak dira, lehen ale honetan, eta gehienetan, nahiz eta Gereñok “trafikoa” eta “Artxandako tunela” ere aitatzen dituen.

Berri-emaile legez jardun zutenak: J. L. Egireun, J.A. Aranburu, Espinosa, X. Gereño, J. Arrieta, A. Zelaieta (Tatana, Txikito, Karabia, Lekubaso, Bekelarre, Hergoien, Bidaurre, Apur-hibai), R. M. Artza, Imanol (Oruemazaga?), Lurgorri (B. Egurrola?), A. Borja, Zorion, Justo A., Nabarniztarra, Lau Gaztek, Portale, Aranberria, A. Perez Bilbao (Artza), J. A. Aroma, Zorrozu, S. Basauri, Irukote, X. Kintana, Isabel Arakistain, Gadu, Joaldi, Gontzolai, Abel (Enbeita), Elaia,

Zamakolatarra (J. A. Zabala), Aizarnatarra, Erramun Gerrikagoitia, J. M. Alday, Urbieta, Sebas (Angoitia?), Leungane, J. M. Galarza, Zapoerri, E. Jaio, I. J. (Mungiatik), S. Angoitia, Ramon Zamalloa, To-Txi (Larrabetzutik), J. M. Mendizabal, Deunoro, Atxuriko Aitor, Mikel U., Josu (Gernikatik), Laurok (Azkoitiatik), I. Ziarsolo, J. J. Iraeta, B. G. (Nabarniztik), Joan Mari (Baionatik), M. A. Lekue, Leungane, Barreski, Julen, A. Sarriegi, I. M. Zubizarreta, Rosi Ibarrondo, Rikardo (Badiola?), Orixol, Martin Basterra, Jose Luis Barrenetxea, Talde bat (Andoaindik), Sebeino (Goizuetatik), Agarramendi (Barrikatik), Gexan Lantziri (Iparraldetik saila), B. G. (Larrabetzutik), Euskerazaleak (Azpeitiatik), Taldeko A. L. (Andoaindik), Josu (Torre), Egurtza, Xiri, A. Eguzkitza, Eduar (Izpazterretik), Danon (Mundragoetik), J. L. Arakistain, A. Zorrilla, P. Trikuarrieta, Joseba L. (Galdakaotik), Benjamin Atutxa, M. Izeta.

Joan Maria Torrealdaik Auritzen 69.IX.19an datatzen duen “Euskaldungoaren alde” artikuluan, “Euskal Herri guztira” begiratu, “Batasun kontzientzia” eskatzen zuen. Antza denez, hemen oinarrituz, “Euskaldungoa” zaila agertu genuen: berri-emaileen herriz-herriko hutsaren alboan, EH osoko berriak ematen genituen, labur-labur. Lehen saiakera 70.II.28an eman zen.

Berri hauxe ematen genuen, 70.V.30ekoan: “Antonio Palenzuela, Segoviako Gotzainak ezkondu zituan herri haretako espetxean dagoan Txomin Ziluaga eta Izaskun Larreategi, biak bilbotarrak.”

Josu Torrek ere izenpetzen du sail hau, 70.IX.15ean hasita.

12.3.3.4. Idazleen Belaunaldi Berria

Hasiera batean bizkaitarrak ginen, batik bat. Laster ekin zioten, baita ere, Bizkaitik kanpoko hauek: Xabier Lete, Ibon Sarasola (“Literatura eta gizartea historian” (artikulu saila), Joxe Azurmendi, Juan San Martin, Zeleta, Amaia Lasa, Karlos Santamaria, Serafin Basauri, Jose Agustin Arrieta, Andoni Sarriegi, Ramuntxo Kanblong, J. A. Letamendia (informatikaz!), Mikel Lasa, Anjel Lertxundi (sormenekoak), Anton Santamaria, Luis A. Aranberri, Endrike Knörr, Gexan Lantziri, Edorta Kortadi, B. Atxaga, K. Izagirre, Larresoro (“Argiago ala ilunago”, “Nazio kultura ta hizkuntza arriskuan”, “Aurrekoetxeari eta Anatsani erantzunez”, “Xabier Kintanaren azken liburuaz”, “Garaudyren *L'Alternative*”, “Bi jakintsuren aitorrak”), “Arraza eta etnia”, Luis Haranburu-Altuna (“Gabriel Arestiren Harriak” (bi aletan), “Ibon Sarasolarekin”, “Alfabetatzearen urratsak”, “Alfabetatzearen pedagogia”, “Iratzeder”, “Euskera goxoa”, *Bai mundu berria* (Amurizaren itzulpena), “Kultura”, “Arantza Urretabizkaia” (elkarrizketa), “Etikarik ez denez”, “Oskorri” (elkarrizketa), “Pedagogia eta gizartea”, “Denboraren gorpila”).

Gure aldiko aldizkari honetan, ba, idazleen belaunaldi berria gertatzen da.

(Aurreko belaunaldikoek ere idatzi izan zuten, haatik: Jose Antonio Oar- Arteta apaizak, adibidez, “Ibargutxi, Jon Gurutz abadea hil da”, 69.X.15ean, edo

Goiriak “Txistua ta tanbolina”. 70.X.15ean. Hauetarikoez utz ziezaioketen gurean idazteari, euren idatziak Imanolek “batueraz” jarri izanagatik).

12.3.3.5. Geografia eta lur-antolaketa

Lehen zenbakitik hasita ekin zion gai honi Jose Luis Lizundiak, urte birako plan bat aurkeztuaz. Irailaren 30ekoan, “Bizkaiko lur galduak” ikertzen zituen: Mena arana, Castro, Villaverde, Limpias eta Colindres, “Menatarrak behin baino gehiagotan azaldu dabela guganatzeko gogo” ohar eginez.

“Bilbo Handiaz” jardutean, ez du ontzat ematen Txori Herri Bilbon integratzeaz, eta, Zenarrutzaz jardutean, “erriko arazoendako arduragabetasun andi bategaz, herri honek bere nortasuna galdu dau, Markina-Xemeinek bereganatuaz” salatzen du Bolibar herriaren anexoaz.

Uribe Butroen arakatzean, Bakion “Bilbotarren txalet “typical” ugari jaso dira urteotan” zioen, eta gehitzen: “Lehen Bermeo ateetaraino sartzen jakon; baina, gero, beste herri askok eskatu behar leukeena, San Pelaioaraino lur zati bat bereganatzea lortu eban”. (71.IV.15).

Trebiñoko Konderrria aztertzean, elizaren modelo aministratiboa ikusten du jarraibidetzat, Konkordato berriak Araban sartzen baitu.

Aparteko artikulua ere idatzi zituen, hala nola “Frantziako herri aldakatzearen txarkeriak”, “Elizaren errialdeak” (Amaitermin izenarekin).

12.3.3.6. Nazio artekoa

Ez zen gai oso erabilia izan: A. Ugarteburuk “Le reveil de la France”, Jordaniak, “Txile Komunistorantz”, Biafraz eta Guatemalako Von Spretiren hilketaz Karlos Santamariak, A. Muniategik Alemaniaz eta V. Spretiz, Fernando Mendizabalek azken urteotako gerrateez, Anton Azkonak “1970 Espainiako Ekonomian”, “Aurrera jo beharra” gaiaz eta “Gerra bako bolada mendebaldean?”; “Italiako eskualdeen autonomiaz” , Kurdistangoaz eta “Ekialde Hurbila” X. Kintanak, “Irlanda” A. Muniategik, Kubaz Jose Agustin Arrietak, “Quebecarren egoeraz” “Europa Batua” Andoni Sagarnak, Allende eta Chilez, Amaia Lasa eta Donagaraik, “Nora doa Irlanda” Antonek, “Dolarraren krisia” J. Arrizabalagak, “Chileko kobreaken auzia” A. Z.k, “Portugal aukera baten aurrean” Xabier Deustuak, “Eguzki aldeko gerra” eta “Nor da Allende Chilen?” A. Lasak, “Pantera beltzak, besoa jasota” Iñaki Azkunek, “Comuneren 100 urteak” Xabierrek, “Italiako gorabeherak” A. Lertxundik, “Munduko blokeak” J. Arrizabalagak, “Turkiako azken gertaerak” eta “Portugalaren oportetan” erreportia Gereñok, “Ea, bada, argi geratzen den” (Nixonen politikaz) Eneko Agirrek, “Zentzua galdu ote dugu” (Vietnamez) Pedro Ibarluzeak, “Yemen” eta “Burundiz guti idatzi dela?” Ainhoak eta “Italiako giza egoera” Bittor Egurrolak.

12.3.3.7. Abeslariak

Alerik-ale jarduten zen gai honetaz: “Nova Canço” delakoaz aipamena lehen zenbakitik dator. Era berean, Natxoren argazkia. Lurgabe, Ibaiak, Epertargiak, Urretxindorrek, Erlak, B. Lertxundi, X. Lete, Ana Tere, Ez Dok Amairu, Los Simbas, Ameslariak, Los Chanchis, Los Picos, Enarak, Argoitia neba-arrebak, Jon Libarona, Isidoro Fagoaga, Maite Idirin, Areatzako Patxo, Egan, Urkola, Antxon Valverde, J. Loroñoren Orquesta de Acordeones, Goienaga, Itxaropen, Saitua neba-arrebak, Lupe, Arratiako korua, Jon Enbeita, Sedetsu, Gorka Knörr, Txai-ro, Eñaut Etxamendi, Larralde... aitatzen dira.

Hauei buruz artikulua, elkarrizketak, iritzi-emateak... ugariak dira: “Euskal kantariak” Juan Manuel Aresek, “Abeslariak... Mitoaldia igarotzen doa” Egurrolak, “Kantarien radikalasuna” Abeslari batek (kantari bakoitzarentzat “erri” hitzak esanahi desberdina duela eta), “Ez dok amairuren Manifestua”, Txomin del Regatok aurkezturiko kanta-jaialdi bati buruz “Sabidurensia, mucho sabidurensia” N. de Felipek, “Txalaparta hotsa hitz egina” M. Lasak, “Abeslariarentzat” deia, “Diska berriak” edota “Kanta berriak” Cinsaren iragarkiak, “Diskoen tiradak”, “Estitxu kantari”, “Euskal kantariak Zuberoan”, “Peter Seeger Donostian”, “Mocedades taldearekin elkarrizketa” Bidebarrietakoak (“Mocedades eta halako batzuez” erantzuna izan zuen), “Andoni Arregiren “Euskal Meza” Bilbon”, “Baga, biga, biga, biga sentikaria”, “The Beatles kantarien etendura” Johanes Zuhatsukok, “Kanta Berri” sariketa aurrera”, “Oskorri kantaria talde berria” A. Eguzkitzak, “Kantarien lehiaketa Basaurin”, “Loroñotarrak eta “Oskorri” taldekoak Bilbon” eta “Ez dok amairu gauzak argiro ipintzen” Donagaraik, “Bide berrien bila” Aurtitzek, “Gure kantariak baditugu guk ere” HERRIATik, “Abeslariak Larrabetzun” Pello errotaren idiak (kritiko xamarra berau), “Joxanton Arza” Bekelarrek.

Kasik ale bakoitzean ematen zen ala Oskorri ala Ez Dok Amairu taldeen berriren bat, biok parean jarri nahian.

12.3.3.8. Ikastolak

Sari aitatzen da hauen joan-etorria, dela handitzea, dela berriztatzea, dela hasiera: Itziarkoa, Iruñean dituzten larrialdeak, “Zerutxo” Markiñakoari Laboralak emaniko laguntza, “Nafarroako ikastola barriak”, “Tafallako ikastola”, “Aretxabaletako ikastola”, Colegio Paz de Ciganda ikastola, “Lizarrako Ikastola”, “Euskal ikastola eta Loiola”, “Iruineko ikastola eta geografia”, “Antzerkia ikastolaren alde”, “Ikastola berria Beasainen”, “Sondikako ikastola”, “Logroñoko ikastola” E. Gerrikagoitiak.

Artikuluak ere, hala nola Jose Antonio Aranbururen “Andereñoak mito?”, “Ikastolak eta euskera batua” 71.I.15eko portadan, “Ikastoletako irakasleei” Irakasleen Elkarteak, “Andereñoa” Gereñok 71.VI.30eko portadan, eta egile berak “Ikastoletako problemak”, eta “Kontuz ikastolekin”, “Lauroko euskal kolejioa”, “Bost ikastola berri Nafararoan”, “Senpereko ikastola”.

Aparteko oharra merezi du jarraiko “berri” honetzek, garaiko ezkertiarerien lekuko:

“Lauroko euskal kolejioa: Bilboko 120 bat euskaltzalek elkarte edo kooperatiba bat biribildu dabe, Lauron (Lujan) euskal kolejio handi bat egin ahal izateko. Euren lehendakaria Josu Beldarrain gizon prestua da. Bizkaiko bankuetxeek prestatu diruarekin lurralde zabal batzuk erosi ditue Lauron. Ondoren, legeak agintzen dituan plano eta behar diren gauza guztiak Madrileran bidaldu ditue. Ministerio de Educación y Ciencia-k ahalegin horreek ontzat eman ondoren, Ministerio de la Vivienda-k, Banco de la Construcción dalakoaren bidez, 10 milioi pezeta eman deutsez, kolejio hori egin ahal izateko: milioi bat hogeitun urteren buruan berriz ordaintzeko, eta beste 9ak dohan.

Kolejio hau egin daitenean, mila umerentzako tokia izango dau. Orain, amets hori aurrera eroan ahal izateko, Bilboko Udalaren baimena behar da, Lujua Bilbo barruan sartzen baita.” (71.IX.30).

12.3.3.9. Ekonomia

Baserria: Lehen zenbakian bertan agertzen den gaia: “Gure eginbeharra baserria erreboluzionatzea izango da” zioen Nekazariak. “Arabarrak” (Enbeita?) “Pinudien etorkizuna”z galdetzen du 70.1.15ean. “Baserriaren galtzea” A. Zelaietak, 71.X.15ean. “Nekazaritzaren azterketa” Eixak 72.I.30ean, “Basarri arazoari erantzun bat” ikasle talde batek.

Teori Ekonomikoa: “Gure ekonomiaren hiru puntu” titulatzan zuen Ramuntxo Kanblogeak, 70.I.28an. Modu orokorrago batez, Antonek (Azkona?) jardun izan zuen honetaz: “Bizkaiko ekonomia atzerantza”, “Ekonomia aurreratu baten oinarriak” adibidez. Berberak “Catalanismo y revolución burguesa” aurkezten du, 70.VII.15ean, “Gaurko gure egoera ekonomikoari buruz”, “Solosaldu baten ondoren” eta “Politika ala metafisika?” Aurtitzek (B. Bakaikoak erantzuna), “Jakinduria eta teknologia ekonomian” Genar Garatek, “Amerikako Suiza” K. Santamariak.

Aparteko arreta jartzen genion Mundragoeko *T.U. (Trabajo y Unión)* aldizkariari: “Mondragoetarren irakatsia.- Mondragoen argitaratzen den *T.U. (Trabajo y Unión)* aldizkariak artikulu interesgarri bat dakar, *Hacia la revolución técnica y científica* izenburuarekin”, adibidez, 71.10.30ean. Edota “Arrasate eta bere etorkizuna” I. Arrigorrik.

Burgesia handiaren asmoen berri ere ematen genuen:

“Euskaldungoa. Bilboko burgesia handiaren helburuak. Ekainaren 18an, Bilboko “El Correo Español-El Pueblo Vasco” egunkariak, egun horretako editorialean, gure azken gerra zibilean Bilbo hartu zen eguna aipatuz, eta bizi garen sistemaren barruan ohi direnak esanez, zenbait helburu berezi azaltzen zituen, tarteka.

Lehendabizikoz, bideen eskasia aipatzen zuen: “Este Bilbao, agobiado por su propia expansión interna, necesita de forma urgente nuevas salidas en forma de túneles, puentes sobre la ría y caminos hacia la meseta”.

Era berean, hain garrantzi handikoa dugun Unibertsitatearen arazoa ikutzen zuen: “En el terreno educacional, la Universidad Autónoma es la realidad más llamativa”.

Bere burgesitasuna herriaren lepotik jasotzen duen klase honek, gehiago eta gehiago jorratu behar lukeela uste dugu, soro hoietan.” (72.VI.30)

Arraintza: Bermeoko Perez Bilbaok jardun ohi zuen gai honetaz, lehen zenbakitik hasita, batzuetan berri legez, besteetan artikulua gisa. “Arraintza kontuak”, “Arraintzea eratuteko erabagi barriak”, “Itsasgizonen seguru sozial legea”, “Modernizazio beharra” ikertzen du 70.XII.15ean; “Bokart arraintzearen eraketa” Artzak (A. Perez Bilbao?), “Egun bi Dakar-en”, “Gure itsasoko aberaskuntza” S. Larreak, “Lebazaleen estualdiak” Gotzon Azpeitiak.

12.3.3.10. Eliza eta erlijioa

Berri ugari ematen ziren instituzio honetaz: “Euskalerriko Anaia Txikarrak” argitaratua ere bazen, alde batetik. Bestetik, Elizaren eragin soziala apartekoa zelako, oraindik. Konkordatua, obispoen izendatzea, kargu berriak, Zamoran gartzelaturiko apaizen joan-etorriak...

Teologiaz, Elizaren izaeraz... jarduten zutenak: Markox Amundarain “lailakoa”, Luisek (Baraiazarra?), Urgoiti, Yoseba Arrieta, Jabier Agirreamalloa, Anton Gerrika, Ander Manterola, Angel Zelaieta, M. Otamendi, J. Azpitarte, Martin Arribieta, Karlos Santamaria, Vietnandar, Xanti Lafitte, Luis Haranburu-Altuna, J. M. Torrealdei, Iñaki Azkune, Jose Azurmendi (beronen “Jesus Nazaretekoa, ezkondua ala mutilzaharra” delakoak zarata handia atera zuen: adibidez, Emilio Kortabitarteren oharra), M. Erdozaincy-Etchart, Joseba Arregi, Añoveros Goztaia...

Ikus, gure joera laikotiarren adibide hau: “*Anaitasunaren* zuzendari jaunak galdetegi bat bidaldu zeutan, bizpahiru hilabete direla, benetan garrantziduna eta interesgarria”, Karlos Santamariak, 71.IX.30ean.

12.3.3.11. Feminismoa

Modu apalez baino ez bada ere agertzen zen: “Emakumeak liturgian” M. Amundarainek, “Ezagutzen dugu geure burua emakumeok?” Mari Anjeles Zarronaindiak, “Neskak fubolean” R. Espinosak, “Emakumeen eskubideak” S. Larreak (Zarronaindiarenari erantzunez; beroni ere erantzuna eman zioten ondarrutarrek, eta hark hauei berriz), “Idazteko eskaintza” (“emakumearen egoeraz”), “Emakumearen desfeminizazioa baterako” (Mary Wellstonecraft aitatzuz), “Mulier Faber edo emakumea langile”, “Emakumea definitu nahiz”, Familia

patriarkalaren iraupena” eta “Askatasunaren aldeko mugimenduak” Jon eta Klaudiok (zenbait artikuluko).

Banco de Bilbaoren iragarkiak emakume bat dakar paperei begira, eta azpian: “Banko honek emakumearen eskubideak zaintzen ditu”.

12.3.3.12. Marxismoa-Komunismoa

Hainbat aldiz ekin zitzaion: hainbatetan Joxe Azurmendik Yugoslaviako egoeraz, Abel Muniategik Vladimir Ilitch Ulianovez, “Greziako polizien Torturak” Xabier Gereñok, “Irlandarrak eta marxismoa” eta “Sozialismoaren dialektika” B. Bakaikoak, “Komunismoaz idatzi” gaia lantzen du Joxe Azurmendik 70.XII.30ean, “Soljenitzyn idazlea” eta “Kristoren ezkerria” Juan Mari Torrealdaiak, “Andrey Amalryck” J. Azurmendik, “Myndszeny kardinalaren arazoa bukatu da” editoriala, “Marxen izkribuak euskaraz” Gotzon Garatek, “Marxen marxismoa” Kintanak, “Marxismoa eta kritika” J. Azurmendik, “Zer da sozialismoa?” irakurle batek Bilbotik, “Gauchismoa fenemeno bezala” eta “Pentsatzeko egoera” Aurtitzek, “Kristauak sozialismo bidean” Sakonek, “Angela, zergatik zara komunista?” eta “Castro Algerian” Ainhoak, “*Marx eta nazioa* liburuaren inguruan Gotzon Garaterekin hizketan”) Hormaetxek, “Mao Tse-Tung nazionalista” Bakaikoak.

12.3.3.13. Bertsolaritza

Bertsolarien jardunaldiei buruz berriak emateaz gain, artikuluko ere eman ziren: Abel Enbeitak bi orrialde bete zituen “Gernikako bertsolari jaia” tituluaz, fotografia eta bertsoez orniturik. “Bertsolari gazteen txapelketa” M. Usabiagak, “Bertsolaritza pentsatzen” B. Atxagak, 72.V.15ean, “Bertsolari txapelketa” Hermandorenak, “Bertsolarien jaia Oiartzunen” Txikitok, “Bertsolarien arriskuak Bilbon” 71.X.30eko portadan.

Bertsolarien jardunaldi debekatuz hainbat berri eman izan ziren. Hona hemen adibide bi:

“Iturri bertsolariaren omenaldian bertsolaririk ez. Iturri bertsolariari, urriaren 31n, Gernikan egin izan jakon omenaldian ezin izan ziren bertsolarien kantak entzun, ez baitzan horretarako behar dan baimenik lortu. Orain, gure bertsolariak beste omenaldi bat Gipuzkoa aldean egitekotan dabilta. Ea suerte hobea dauken!” (71.XI.15).

“BERTSOLARIEN ARRISKUAK BILBON. (...) Azpillaga eta Lopategi ospetsuek ere parte hartuko ebela iragarrita egon arren, azken azken orduan, azokan bertan jakin arazi jaken, ez eukela horretarako behar dan baimenik. Legezko dan bezala, bertsolariok oso hasarre jarri ziren, azken ordurarte ezer jakin ezagatik.” (71.X.30).

12.3.3.14. Zientzia

Juan Ramon Etxebarriak ekin zion arlo honi, 71.X.15ean: “Erlatibitatearen teoria”, “Ni neure amaren aita?”, “Materia eta antimateria”, “Zergatik azalpen

zientifikoak”, “Erradio-isotopoak”, “Erradioaktibitatearen problemak”, “Bihar eguzki ala euri?”, “Irradiazioaren balioa”, “Prehistoriako hezur zaharren adina”, “Euskera teknikoa dela eta”, “Bero kontaminazioa” eta “Informatika herri kulturaren zerbitzutan” (Iñaki Nuñez aitaturaz) Letamendiak, 71.V.30ean.

12.3.3.15. Zinema

Benito Ansolak zine kontuak aitatzen ditu: Antonioniren *El Desierto rojo* pelikulaz hasita, 70.VII.15ean. Geroago, *Cantando bajo la lluvia*, E. Kazanen *El Compromiso*, *Straw Dogs*, *Ama lur* filmea Madrilen, *Love story*. Eta “*Woodstock*” filmea eta “hipien” mugimendua” M. Mendizabalek.

B. Ansolak zinemaren “autonomiatik” jarduten zuen, “euskalzentristorik” gabe.

12.3.3.16. Sindikalismoa

Ez zen askorik landu: “Lege Sindikal Berria” Antonek 69.XI.30ean. “Langileria historian zehar” Hormaetxek, 72.III.15ean, “Munduko goseari buruz zenbait gogoeta” Joseba Agirreazkuenagak (Helder Cámara aitaturaz), “Kristau sinesmena eta klaseen burruka” J. M. A.k, “Maiatzaren lehena” editoriala, “*Langileria historian zehar*” liburu interesgarria” Hormaetxek.

12.3.3.17. Bitxikeriak

Jarraiko hauxe irakur daiteke 70.VI.30ekoan: “Mis Navarra” sariketea bertan behara galdu da, andereño bakar batek baiño ez baitau parte hartu. Poztutzen gara”; “Dibortzioa, bai ala ez” X. Kintanak, “Mario, Natxo eta Itziar “trikitixa” baten bila”, “Sexoaren askatasuna, tirania berria” A. Perez Bilbaok (Ondarroatik erantzuna jaso zuena).

Hau lako deiak ere irakur daitezke: “Andereño bat behar da Arrasaten”, “Lau neska gaztetxorentzat lekua eskaintzen da”, “Bi-lingual secretary”.

Aparteko karta bi ematen ditugu: lehena Norbert Tauerren eskutitz hau:

“Nire adiskide maitea: Gabon baketsu ta urte berri zoriontsu bat. Jainkoaren bedeinkapenez betea, opa dauzkizut. *Anaitasunan*, garrantzi handiko jana egi-ten jarraitzen duzu. Neure zorionak!

Aldizkari hau asko gustatzen zait, batez ere oraingo tankeran. Pozik irakurtzen ditut bertan agertzen diren irakurgai guztiak. Zenbaki bakoitzak berri pozgarriak dakarzkiz.

Zuri eskerrak, orain arte, aldizkari hau pagatu gabe eskuratu dut. Ba dakizu, hemendik ezin dudala dirurik bidali. Niretzat mingarri izango lizateke aldizkari eder hau hartu ahal ez izatea.

Osasunez ez nabil ondo... 72 urte bete ditut.

Zure menpeko.

NORBERT T. (Praga)

OHARRA: Eskutitz hau Txekoslovakiako Norbert Tauer jaunak bidali dio Imanol Berriatuari. Ez luke inork jaun jator horren diru ordainketa egingo? ” (71.I.15ekoa).

Bigarrena, Jon Miranderen eskutitz hau:

“Erabaki guztiz harrigarria: Parisetik idazten digu Jean Mirande euskal idazle ospetsuak, jarraiko modu honetan *Anaitasunari* uko egiten diola esanez:

“7, rue Jules Dumien
Paris XX
le 9 Juillet 1971

Messieurs et chers compatriotes:

Je vous ai écrit il a quelques jours, mais en me trompant d’adresse. Bien que ma première lettre soit destinée, je pense, à vous parvenir un jour, je préfère m’adresser à nouveau à vous, en répétant d’ailleurs à peu près les mêmes termes. Je reçois depuis quelques mois *Anaitasuna*, revue à laquelle je ne me suis jammais abonné et que je jette sans la lire, étant fasciste (bien que basque) et détestant le christianisme, ou du moins la démocratie chrétienne, en fait judaïque. Je vous prie de donner suite à ma demande.

Comme je vous le disais déjà, excusez de vous écrire en français; vous trouverez, je pense, aisément un interprète. Et par ma part l’euskara, que je continue de pratiquer avec ma famille souletine, m’est devenu étranger, comme langue politique et de culture.

Veillez croire à mes sentiments dévoués. J. Mirande.”

12.3.3.18. Isuna eta autozentsura

Xabier Gereñoren “Zu, Euskal Herri!” 71.XII.30ko portadan eman genuen. Gainean edo goikaldean, gazte batzuk burua makurtu xamar, baioneta batzuen aurrean. Norbaitek salaketa sartu eta Ministeritzak 25.000 isuna jarri zigun, nahiz eta J. A. Etxebarrietak defentsa lanak azkar egin. “Sentencia o resolución administrativa firme” 72.V.15ean eman genuen argitara, legeak agintzen zigun bezala. Ez genuen beste isunik edo izan, nahiz eta beste behin portada bateko fotografiaz galderak egin, “Censura previa” delakora aurkeztean. Hau dela eta, autozentsura antzeko bat egiten geniola geure buruari esan daiteke. Adibidez, Txomin Ziluagari 15 urteko gartzela-zigorra ezarri zioten 69.X.25ean. Ez da *Anaitasunan* honen berririk ematen. Baina hau irakurri daiteke, gorago esan bezala: “**Antonio Palenzuela**, Segoviako Gotzainak ezkondu zituan herri haretako espetxean dagoan Txomin Ziluaga eta Izaskun Larreategi, biak bilbotarrak.”

Burgosko epaiketa handia, 70.XI.28an iragarten da, abenduaren 3an egi-ten eta 28an sententzia ematen. Tartean, J. Kalzada eta J. Etxabe apaizak dau-
de.

Aurretiaz, XII.1ean ETAk Beihl alemaniar kontsula bahitzen du Donostian, eta 25ean libre uzten.

Ez da guzti honen berririk *Anaitasunan* ematen. Heldu zen kartaren bat isil-tasun hau salatzen. Era berean, iparraldeko zenbait euskaltzaleren bisita izan genuen Jardín Txikerran eta gorabehera hauetaz, bereziki Behilez, hitz egin zen: non euki izan zuten bahitzaileek, ihesi egin zuela...

Bilboko Jardín Txikerran ginela, 1970 edo 71n, ETA Viko militante bat biltzen da, aldizkariaren egoitzan, bizpahiru euskal idazlerekin, Lur ingurukoak, Aresti eta erredakzioko partaide bat tarteko. Militante haren esanaren arabera, Gabriel *in ausentia* bezala omen zegoen. Erredakziokoak, aldiz, ez zuen bilera ondo ikusi, ez aurrerabiderik eman. (Ik. ZELAIETA, A.: *Gabriel Aresti*. 2. edizioa, Zarautz, 2000, 188an).

Apaizen gartzelatzeez, ostera, hainbat xehetasun ematen genuen, segurue-
nik Elizaren babesa edo geneukalako:

“Imanol apaiza iru ilabeterako eroan dabe Zamorako espetxera”, Ondarroa-
tik, 70.VI.15ean. “Zamorako kartzelan dagozan abadeak ikasten dihardue”
(Alberto Gabikagogeaskoa, Martín Orbe, Felipe Izagirre, Jesus Naberan eta
Julen Calzada). “askatuak izan ziran ekainaren 18an Cipriano Zamalloa, Anasta-
sio Olabarria, Martín Ormaeche, Ernesto Araco, Francisco Regidor, Antonio
Gurrutxaga, Jose Antonio Zabala eta Javier Sagastagoitia”; Jose Antonio Calzada
ere, giltzpean hilabete osoan egon ondoren, etxeratu barria da” (70.VII.15ean,
“Bizkaiko Elizatik”), eta “Orain urtebete, Jesus Naberan kartzelara eroan eus-
kuen” zioen To-Txik 70VII.15ean; “Martín Orbe apaiza gartzelara eroan ebene-
tik hona, Zeanurin hutsune handi bat dogu” Zamakolatarrak, 70.XI.15ean;
“Jesus Naberani goraintziak bidaltzen deusguz bere urtebetetzean.”, M. A.
Lekuek, 70.XI.30ean; “Axuritik Zamoraraino zorianak, don Alberto” ziotsoen
Axuritarrek A. Gabikari, 71.I.15ean (A. Gabika honen fotografia eman genuen J.
Azurmendiren “Meditazio bat de Lubac-en itzalpean” artikuluan); “Xabier Amu-
riza, aspaldian Zamorako espetxean”, 71.I.15ean; “Martín Olazar, Zeanuriko
parrokoa, 150.000 pezetako multarekin zigortua izan da gabon ostetxoan, “lápi-
da conmemorativa de los mártires de la tradición” oroitarria bere menpeko eli-
zatik kendu ebalako”; “Periko Berrio (...) zigorra Zamorako espetxean egonaz
partu ondoren, berriz ere geure artean daukagu” (biok 72.IX.15ean) eta “Zamo-
rako espetxean lanean” (72.XI.15).

Laikoez oso gutxitan eman izan genuen berririk. “Zazpi ilabetean kartzelan
egonda gero, Patxi Ansola barrero dago gure artean”, X. Gereñok 69.XI.30ean.
Behin, horregatio, berri modu hau jarri genuen:

“GABON EGUNEAN ESPETXEAN EGON GINAN GU. Zihurtasun guztiarekin ezin geinke esan. Baina, joan dan gabon egunean, Basauriko espetxean 34 euskaldun egon ginan, Burgosen 24, Villafranca de Camposen 3 (irurak abadeak), Carabanchelen 10, Zamoran 14 (danok abadeak), Jaenen 13, Palencian 7, Puerto de Santa Marian 1, Ocañan 2, Cordoban 1. Beste toki batzuetan bere, ba ginan gehiago.”

Hainbat aldiz agertu ohi genuen zein zen geure “joera”: lehen zenbakian, “Barrero Lanean” haretan, “jende humilari” zuzentzen gintzaizkiola, alfabetatze, ikastola eta kultura hitzak azpimarratuz; “*Anaitasunaren* joera” delakoan (70.IV.30) berriz ere (euskararen) batasuna aitatzen genuen; urte bereko uztailan, T. Monzoni egindako elkarrizketa ematen du A. Zelaietak, non Monzonek desiatzen baitio *Anaitasunari* (euskaldunon) “batasun mutila” izan dadin. Urtebetetzean (70.IX.15), “kultura sailean daramagun arazo hau” aitatzen da. (Imanolek askotan hots egin ohi zidan: “Gu frente kulturalekoak, e, Txikito!”). “Oraindik gehiago” genioen 71.IV.15ean, “era posibleak” eta idazleen prestakuntza eskatuz; “Bigarren pausoa” idaztean, 71.X.15ean, (euskararen) batasunaz jarduten da; “*Anaitasunaren* manifestua” delakoan (72.II.29) (euskararen) batasuna, “herritasuna”, sozial arloan “aurrerazale” izatea eta erlijio kontuan “joera zabal” bat agertu nahi dugula genioen; “Gurea guztiontzat” delakoan “sozialismo” antzeko zerbait (72.IV.15); eta, azkenez, segidako maiatzaren 1ean, “langileriaren burrukaldiak” gogoratzen dira eta “buruz eta zientziaz” jokatzeko desiatzen.

Hiru joeraren erdian jokatu ohi genuelakoan gaude: Eladioak, ETA V eta ETA VI.nekoak, lehenengandik arrazionalismoa, bigarrenengandik ekintzailetasuna eta hirugarrenengandik giza-aberastasunen banaketaren asmoak jasoaz.

12.3.3.19. Aparteko aipamenak

Gabriel Aresti

Gabrielen artikuluak aparteko eragina izan zuten: 70.VIII.30ean Larresoroen *Sustrai bila* komentatzen du, Miranderen *Haur besoetako*a, Artetxeren *El Abrazo de los Muertos*, “Munstro bat, bi munstro” (Andolin Eguzkitza dela eta), Etxeberriren *Noelak*, “Jose Manuel Lujanbio Retegi “*txirrita*”, “Nork dio gezurra”, “Zapatak noizean behin garbitu behar”, “Badaezpadakoak eta seguruak”, “Guti eta gaizki dakigunok”, “Baina ez apirilik...”, “Euskal teatro zaharrak San Antongo elizan”, “Bernat Etxepare” (K. Agirrek erantzun luzea eman zion), “Azaba zaharren baratza-Lizardi”, “Mugak”, “Euskal asto lasterrak” (bi aletan; bigarrena zentsuratzekotan izan ginen, Pilar Careaga alkatesa modu bortitzean aitatzen zuela eta), “Euskaldunaren hazia”, “Mundu berri eta bizkor”. Gabrieleen beti ekartzen zuten erantzunen bat, hots, irakurriak ziren.

X. Gereñok zioen behin (71.X.30) “Aresti eta Txillardegia. Biak ezkerrean, baina zoritxarrez (edo zorionez) bata bestearengandik urrundirik”.

Karmele Rotaetxe

Karmelek zerabiltzan gaiak “unibertsitarioak” deituko genituzke, mamiz eta eraz: “Marat-Sade”, “*Berterretx* pastoral”, “Irakaskintza sistema ofiziala eta irakalslea”, “Asmoak hitzen azpian galtzen direnean ddo kritika zaleei ohar bat”, “Linguistika eta euskera”, “Baionako kultur astea”.

Mitxelena

Ez zuen bere kabuz gugana inoiz ere jo. Adi egoten gintzaizkion, haatik: Arestik aholkaturik, eta beronek lagundurik, elkarrizketa egin genion, eta portadan eman, 70.IV.30ean; portadan, baita ere, bere fotografia eta guzti, “Mitxelenaren jaunaren mintzaldia Donostian”, 70.X.15ekoan, “Maisuaren Orkatila”, 71.XI.15ean.

12.4. *Euskera*

1953ko “urrillean” agertu zen gerra ondorengo bigarren aroko Euskaltzaindiaren bozeramale *Euskeraren* lehen zenbakia. Atarian, “Trabajos y publicaciones / de la Acedemia de la Lengua Vasca / Euskaltzaindia / ren lan eta agiriak / Cuaderno I / Editorial de la Acedemia Vasca / Bilbao-San Sebastián”. Eta beste ohar hau: “Miembros que forman parte de la / Academia de la Lengua Vasca - Euskaltzaindia / Presidente: D. Ignacio María Echaide / Secerretario: D. Nazario de Oleaga / Académicos numerarios: Dassanze Louis, Echegarai Bonifacio, Elissalde J. B., Gorostiaga Juan, Inza Fray Dámaso, Irigaray Ángel, Krutwig Federico, Lafitte Pierre, Lafon René, Lecuona Manuel, Lhande Pierre, Michelena Luis, Moulier Mr. l'abbé, Seminario Rojas J., Villasant Cortabitarte Fr. Luis. / Académicos correspondientes: Aguerre José, Apraiz Odón, Arotzarena Sauveur, Arruza Miguel, Américo Castro, Barandiarán José Miguel, Bouda Charles, Charriton Pierre, Donostia J. A. Fray, Diharce Jean P., Dufau Dominique, Epherre Guillaume, Erquiaga Eusebio, Esparza Eladio, Eyramendi Abbé, Fagoaga Blas, Garro Bernardo, Gavel H., Guilson Pierre, Iburguchi Juan Cruz, Iraizoz Policarpo Fr., Labayen Antonio M^a, Larrasquet Jean, Larramendi Ignacio, Larzábal Pierre, Leon Leon, Léon Albert, López Mendizábal Isaac, Maidagan Gregorio, Manterola Gabriel, Menéndez Pidal Ramón, Michelena Salvador Fray, Narbaite Pierre, Olasagarre Miguel, Ormaechea Nicolás, Saralegui Vicente, Soubelet Dominique, Tovar Antonio, Vallejo José, Yrizar Pedro, Zabala Pedro, Zaitegui Joaquín”.

Ez zen berriro agertu 1956.a arte, handik aurrera erregularki agertuz gure egunetara arte. 1956. hartan, Euskaltzaindiak abiada berri bat hartu zuen: Arantzazuko bilera egin, eta 1959an, Bilboko Batzarrearen ondorioz zera erabakitzen da, “*euskararen baitan sustraituriko bitzak euskal bitztzat jo behar direla*”. Batasunerako bidea prestatzen hasia zen, eta hurrengo hamarkadan burutuko ziren Mitxelenak, Villasantek eta beste batzuek zerabiltzaten ideiak.

Kazetaritzaren aldetik, interesgarria da Irigoienen saiakera: “Berriak eta gai laburrak” sailari ekiten dio (gehien bat berak idatzia). Ez dira berri akademiko hutsak: “Euskerazko dotriña berria Bizkaian”, “Euskera eleizetan”, “Bizkaiko bertsolarien lenengo sariketea” (1958-III), “Euskal Seriketea amar urtetik amairu urterako neska-mutil bizkaiatarrentzat”, “Euskal kontzertu nagusi bat Bilbon”, “Bermeoko jaia” (eta beronen barruan “Irigoyen-en itzaldia”), “Misiok euskeraz Bilbon”, “Astraburuako kurutze-bidea”, “Bizkaiko bertsolarien bigarren sariketea” (1959-IV), “Erromako erantzuna Euskaltzaindiak aita santuari bialdu eta eskeiñi zion Bibliaz”, “Bizkaiko neska-mutillen esamiñak”, “Bertsolarien sariketak”, “Euskerazaleen biltzarra”, “Bertsolarien txapelketak” (1961-VI), eta beste hainbeste.

1960an, VII. alea agertzen da, “Zuzendaria: Alfonso Irigoien” dela. 1971n, XVI. alea botatzen du, A. Luis Villasante buru dela. XIV. alea botatzen du 1980an.

12.5. *Kili-Kili*

1964an Bilbon Jose Antonio Retolaza abadeak umeentzako sorturiko euskal aldizkaria. Orduan Bilboko San Antongo elizan zegoen, eta lehen bi urteetan Derioko seminariotik multikopiaz atera zuen aldizkaria. Hogei zenbaki izan ziren, hasiera batean laurogei bat kopia, gero bi mila. Aldizkariak ez zuen legezko baimenik, eta eskuz banatzen zen Bilboko ume euskaldunen artean. Bizkaieraz idatzia zen.

Legearenpean jartzeko beharrea, sortu berria zen Euskerazaleak elkartera jo zuen Retolazak 1968an. Ale bat inprimitu zuten, baina Madrilera baimena etorri ez eta debekatu egin zen aldizkaria. 1977. urte arte ez zen berriro agertu.

Bilbon izaniko *Kili-kili* egun baten 9.000 haur bildu ziren.

12.6. *Lugintza*

1969-75 urteetan Bizkaiko Aurrezki Kutxak bota zuen “Baserritarren adiskideen abelur orria”.

12.7. *Pott*

Literaturako euskal aldizkaria, Bilbon 1977-1980 bitartean argitaratua, R. Ordorika, B. Atxaga, J. Sarrionaindia, J. Iturralde eta beste euskal idazle gazte batzuen ekimenez. www.armiarma.com orrian irakurgai 6 aleak.

12.8. *Urraspide*

Bilbon 1978-83 urteetan AEKk argitaratua.

Bibliografia

DÍAZ NOCI, Javier: *Euskal kazetaritzaren historia*. Donostia: Eusko Ikaskuntza, 1999, <http://www.eusko-ikaskuntza.org/ephtm/>

RUIZ DE GAUNA, Adolfo (1991). *Catálogo de publicaciones periódicas vascas de los siglos XIX y XX*. Donostia: Eusko Ikaskuntza-Eusko Jaurlaritzaren Kultura eta Turismo Saila.

Oharra.- Díaz eta, batez ere, Ruiz de Gauna honen lanetan aurki daitezke hemen agertzen ditugun aldizkari guztien zenbait zehetasun. Badira, haatik, zenbait ez bata ez besteak aitatu gabeak.

anaitasuna

KOORDINAKETA
J.R. Etxebarria

ERREDAKZIOA
J. Llerandi, T.Trifol

ERREDAKZIO KONTSEILUA
J. Agirreazkoenaga, M. Alvarez, B. A-txaga, J. R. Etxebarria, X. Kintana, E. Knör, J. Idigoras, J. Llerandi, E. Martin, T. Trifol, I. Urtañan, I. Zabaleta.

ARABA
E. Knör

BIZKAIA
J. Llerandi

GIPUZKOA
I. Urtañan, A. Oiarzabal

IPARRALDEA
M. Lanata

NAFARROA
I. Zabaleta

NAZIGARTEKOA
T.Trifol, M. Alvarez, A. Eskisabel, M.J. Esteban

IDAIZLE ETA LANKIDEAK
J. Artzelus, X. Gereño, J. M. Torrealdai, A. Eguzkitza, P. Agirrebaltzategi, I. A. koaga, J.L. Alvarez (Txillardegil), A. Loroño, J. Mendizabal, J. Azurmen-di, M. Haranburu, M. Lasa R. Ordorika, E. Entziondo, S. Lafitte, M. Paga-la, K. Anakabe, J. Serrionandia, J.J. Bakedano, Natxo de Felipe, F. Alaña, J. Etxebarri, B. Barandiaran, K. Arko, J. Iturbe, M. Otazurialde.

MAKETAPENA
R. Zumalabe, J. Etxebarri

KOMIKIAK
A. Olariaga, I. Lauzirika, B. Zia, X. Etxeniko, Gentz.

PUBLIZITATEA
ETA
HARPIDETZA
J. Idigoras, A. Uria

IDAZKARITZA
ETA
ADMINISTRAZIOA
Zabalbide 68-entlo. BILBO
Tfnoa. 4335808


MOLDIZTEGIA
Iparragirre S.A.
Carretera de Galdacano s/n. BILBO
Lege Gor: Bi-1753-1967

4. hor.

1978ko abendua.



Gure aldiko Anaitasuna atarikoak



Antton Olariagaren irudia. 1977.



1978ko Kili-kili egunaren iragarpena



Jakinen 34. zenbakia



Garaia iragarten zuen kartela, 1976an



Txistulari aldizkariaren 22. alearen ataria